Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

# *Joxe Malbadi Olano*

*Albiztur, Gipuzkoa (1921)*



Aurkibidea

**Biografia**



Albizturko Babilonia baserrian jaioa. Bederatzi senidetan zaharrena zen. Gerra hasi zenean hamalau urte zituen, eta 1942an soldadu eraman zuten. Hala pasatu zituen bi urte eta hiru hilabete. Handik itzuli zenean, etxeko martxa hartu zuen beregain. Ordurako, hamasei urte zituela hasi zen lanean Illarramendi paper-lantegian eta hara itzuli zen berriz ere. Berrogeita zortzi urtez egin zuen lan bertan, erretiroa hartu zuen arte.

# Zintak

## ALB-008

- **Proiektua**: Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artetxe, Miren
- **Data**: 2010-09-13
- **Iraupena**: 65 min
- **Euskarria**: Bideo digitala
- **Kodifikatzailea**: Arteaga, Karmele

# Pasarteak

## 1. Babilonia baserrian jaio eta bizi da

- **Erref**: ALB-008/004
- **Iraupena**: 0:01:49. **Hasi**: 00:06:19. **Bukatu**: 00:08:08
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- Euskara » Lexikoa

**Laburpena**:
Joxe 1921ean jaio zen gaur egun bizi den baserri berdinean, Albizturko Babilonia baserrian. Baserriaren izen berezia dela eta galdezka etorri omen zaizkie. Garai batean Babilonia deituriko baserri gehiago ba omen zeuden.

## 2. Senide zaharrena izatearen ondorioak

- **Erref**: ALB-008/005
- **Iraupena**: 0:01:27. **Hasi**: 00:08:08. **Bukatu**: 00:09:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Aldaketak eta arazoak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

**Laburpena**:
Bederatzi senideetan zaharrena da. Zaharrena izatea okerrena dela dio, lan gehiago egin behar izaten duelako. Ez zuen jasoko zituen ondasunetan pentsatzen, lana bakarrik ikusten zuen. Bera geratu zen baserriarekin.

## 3. Gau eskolan ibili zen

- **Erref**: ALB-008/006
- **Iraupena**: 0:00:37. **Hasi**: 00:09:35. **Bukatu**: 00:10:12
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak

**Laburpena**:
Txikitan eskolara joan zen urte pare batez baina etxean laguntza behar zutenez, gau eskolara bidali zuten.

## 4. Erreketeak nagusi gerra garaian

- **Erref**: ALB-008/007
- **Iraupena**: 0:01:48. **Hasi**: 00:10:12. **Bukatu**: 00:12:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- Politika » Jarrera politikoak » Erreketeak

**Laburpena**:
Gerra denboran, errekete bat bazen Albizturren kapitaina izatera iritsi zena, besteen kontura. Herriko gazteek txapel gorria jarrita ibili behar izaten zuten, derrigortuta, instrukzioa ikasten. Herrian guardiak ere egiten ziren.

## 5. Gerra aurreko kontuak

- **Erref**: ALB-008/009
- **Iraupena**: 0:01:05. **Hasi**: 00:12:56. **Bukatu**: 00:14:01
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Politika » Gerra aurrea » 1923-1931: Primo de Rivera

**Laburpena**:
Gerra aurreko kontuak entzunak ditu. Primo de Rivera nor zen ez zekiten, oso gazteak ziren eta. Inoiz ez du politika oso gustuko izan.

## 6. Errepublika garaia Albizturren

- **Erref**: ALB-008/010
- **Iraupena**: 0:01:56. **Hasi**: 00:14:01. **Bukatu**: 00:15:57
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Politika » Gerra aurrea » 1931-1936: II. Errepublika

**Laburpena**:
Errepublika garaian batzuk nazionalistak eta besteak karlistak ziren. Karlistek Zirkulua zuten eta besteek batzokia. Sekretario zen karlista bat hil egin zuten eta gizon bat preso sartu zuten.

## 7. Emakume batzuei ilea moztu

- **Erref**: ALB-008/011
- **Iraupena**: 0:02:30. **Hasi**: 00:15:57. **Bukatu**: 00:18:27
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ondasunen galera

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

**Laburpena**:
Nazionalista bati etxea kendu zioten, kontrakoak agintzen jarri zirenean. Emakume batzuei ilea moztu zieten eta orduan ikara pasa zuten. Hura zigor handia izaten zen.

## 8. Alderdien arteko liskarrak Albizturren

- **Erref**: ALB-008/012
- **Iraupena**: 0:00:39. **Hasi**: 00:18:27. **Bukatu**: 00:19:06
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Politika » Jarrera politikoak » Liskarrak politikan

**Laburpena**:
Zenbait kontu ez gogoratzea hobe. Politikagatik liskar handiak izaten ziren.

## 9. Gosea soldadu garaian

- **Erref**: ALB-008/013
- **Iraupena**: 0:03:11. **Hasi**: 00:19:06. **Bukatu**: 00:22:17
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura

**Laburpena**:
1942an soldadu joan zen eta Bilbon bi urte pasa zituen. Soldadutza txarra zen, miseria. Ogi gutxi ematen zien. Janaria oso eskasa zen baino ematen zietena jaten zuten, baba handiak, gehienetan. Kapitainen arabera janaria hobeagoa edo okerragoa izaten zen.

## 10. Bilboko bidean gertatutakoak

- **Erref**: ALB-008/014
- **Iraupena**: 0:01:42. **Hasi**: 00:22:17. **Bukatu**: 00:23:59
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Trenak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

**Laburpena**:
Bilbora trenez joaten ziren, kostako trenean. Bidean gertatutako pasadizoak kontatzen ditu.

## 11. Bilbon soldaduen instruktore

- **Erref**: ALB-008/015
- **Iraupena**: 0:01:18. **Hasi**: 00:23:59. **Bukatu**: 00:25:17
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura

**Laburpena**:
Trenez joan ziren Bilbora, kuartelera. Etxetik paketea eraman zuten jateko zerbaitekin. Soldadu bezala instruktore izendatu zuten.

## 12. Soldaduei instrukzioa erdaraz

- **Erref**: ALB-008/016
- **Iraupena**: 0:01:41. **Hasi**: 00:25:17. **Bukatu**: 00:26:58
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Euskara » Euskararen egoera
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura

**Laburpena**:
Soldadu joan zenean erdaraz gutxi zekien, orain bezalaxe, baina ulertzen zuen. Instrukzioa erdaraz ematen zuen.

## 13. Bizkaitarrei hasieran ezin ulertu

- **Erref**: ALB-008/017
- **Iraupena**: 0:02:50. **Hasi**: 00:26:58. **Bukatu**: 00:29:48
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura

**Laburpena**:
Bilboko kuartelean euskaldun asko zeuden. Bizkaitar asko ziren eta haiekin ongi ulertzen ziren nahiz eta bizkaitarrez hitz egin. Hasieran ulertzea kosta egiten zitzaien baina ikasi zuten. Nafarrek erdaraz egiten zuten. Debakoak ere baziren baina bizkaitarrei baina hobe ulertzen zitzaien.

## 14. Euskaldunak eta erdaldunak soldadu garaian

- **Erref**: ALB-008/018
- **Iraupena**: 0:02:28. **Hasi**: 00:29:48. **Bukatu**: 00:32:16
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura
- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua
- Euskara » Euskararen egoera

**Laburpena**:
Bizkaitarrek Gipuzkoan hizkera polita zutela esaten omen zuten. Erdaldunekin ez zuten harreman asko. Hizkuntzarengatik ez zuten arazorik izan.

## 15. Soldadutzako kontuak

- **Erref**: ALB-008/019
- **Iraupena**: 0:03:19. **Hasi**: 00:32:16. **Bukatu**: 00:35:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Aisia » Taberna giroa
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura

**Laburpena**:
Soldadutzatik ez ziren nahi adina etxera bueltatzen. Destino ezberdinak izan zituen soldadu zegoenean, okina, kalefakzioaren arduraduna, tabernaria,... Ardoa, zerbeza eta horrelakoak zerbitzatzen zituen.

## 16. II. Mundu Gerrarako boluntarioen bila

- **Erref**: ALB-008/021
- **Iraupena**: 0:01:13. **Hasi**: 00:36:26. **Bukatu**: 00:37:39
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura
- Politika » II. Mundu Gerra (1939-1945)

**Laburpena**:
Soldadu zeudela boluntarioak eskatu zituzten II. Mundu Gerrara joateko. Apuntatu ziren batzuk bertan bizia eman zuten.

## 17. Fabrikara lanera, bizi hobeago baten bila

- **Erref**: ALB-008/023
- **Iraupena**: 0:01:51. **Hasi**: 00:40:25. **Bukatu**: 00:42:16
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea

**Laburpena**:
Gaztea zenean mendira joaten ziren behiekin eta momentu horietan pentsatzen ibiltzen zen. Bizi hobeagoa bilatu behar zuela erabaki zuen eta horregatik hasi zen fabrikan lanean. Fabrikako jornala pobrea izan arren, segurua zen. Ez daki gurasoek zer pentsatuko ote zuten. Fabrikatik itzulita beste zortzi ordu lan egiten zituen etxean.

## 18. Fabrikan egunkarientzat papera egiten zuten

- **Erref**: ALB-008/025
- **Iraupena**: 0:02:47. **Hasi**: 00:44:40. **Bukatu**: 00:47:27
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ekonomia eta industria » Lantegiak
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

**Laburpena**:
Fabrikan egunkarietarako papera egiten zuten. Lantegiko makinak ez ziren gaurkoak bezalakoak. Orain papergintza asko hobetu dela dio. Gaur egun Txinara saltzen dutela daki. Papera egiteko pinua erabiltzen zuten, askotan kanpotik ekarritakoa. Horregatik hasi ziren bertan pinuak jartzen.

## 19. Soroko lanak

- **Erref**: ALB-008/033
- **Iraupena**: 0:01:40. **Hasi**: 01:01:20. **Bukatu**: 01:03:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Baserria
- Baserria » Baserriko lanak
- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak

**Laburpena**:
Soroko lanean garai batean azaroan garia egiten zen. Lurra laiarekin jiratzen zuten. Eguna aprobetxatzeko oso goiz ateratzen ziren. Laian emakumeak ere ibiltzen omen ziren.

**Ahotsak.eus**-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
*2026-10-31*

**CC-by-sa** | **Ahotsak.eus**
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com